

ARESOKO IV. MENDI MARTXA

Datorren irailak 4ean Aresoko Mendi martxaren hirugarren edizioa ospatuko da. Zailtasun ertaina duen martxa ez konpetitibo honek 26 kilometroko luzeera eta 1200m-ko desnibel pilatuko ibilbidea izango du aurten.



Martxa Aresoko plazatik abiatu eta mendizaleak Ulizarko kaskora igo ondoren, Urkita mendi aldera abiatuko dira. Bertatik Aralarko tontor ederrak eta eguraldi ona eginez gero Txindoki bera ikusteko aukera izango da. Urkitako bueltatik Pagozelaira iritsita, Lau Mugarrietatik joko dute mendizaleak, ibilbidea, berriz ere, Aresoko plazan amaitzeko.

Mendi martxa goizeko 8etan hasiko da eta lau edo bost orduko iraupena izango du. Ondoren luntxa, opariak eta zozketak egonen dira.

Aurre izen emateak www.mendizmendi.com web orrialdean egingo dira Irailak 1era arte, 5 eurotan.

Egun berean izena emateko aukera ere egonen da, 10 eurotan, goizeko 7etatik 7.45ra arte Aresoko Plazan bertan.